

EGUBERRI CHRISTMEN MEZUAZ

(Jaiotzaren inguruko poesia, musika eta artea)

Donostia, 1986-XII-19

Juan San Martin

Eguberriak iristean milaka eta milaka *Christma*-ren bidez oroitarazten da Kristoren mezua. Gizarte harremanak girotzen laguntzen du, elkarrenganako maitasuna erakutsiaz. Garai horretan, txartel horiei esker, inor ez da urruti. Eta horrek ekarri du Eguberrietan *Christma* merkatalgoa ugaltzea eta dirua miloika gastatzea.

Baina, *Christma*-k, beste alderdi bat ere badu: kulturaren zabalkundea. Zeren, txartelgintzan, diseinuaz gainera plastika artea, musika eta literatura ere sartzen bai dira.

Entrepresa batzuk berentzat prezeski egiten dituzte txartel bereziak, baina gehiengoek hortara aritzen diren multinazional gisako merkataritxeek eskaintzen dutunetik hornitzen dira. Partikularrak zer esanik ere ez, edozein denda edo kioskotan salgai aurkituko dituztenez.

Dirutza izugarria ematen da *Christma*-tan eta gehiena herbesteko etxeek herbesteko gaiez eginak. Erresuma guzietan *Christma* berdintsuak eta Euskal Herriko urri.

Kulturaren hedakunderako hain garrantzizkoak diren *Christma*-k inori ez zitzaion bururatu, edo inor ez da arduratu, Euskal Herriko arte, literatura eta musikaz baliaturik egitearik. Horren beharrez aspalditik kezkatuak nengoen eta zenbait entrepresa eta aministralgo agintariei agertu ere bai hortaz jabetzea, baina badirudi inork ez duela ulertu horren garrantzia.

Zazpi urte datoz euskaltzainen artean kezka hori agertu nuenetik; zuzendaritzari idea ona zeritzon eta Eguberrietarako Euskaltzaindiaren *Christma* egitea nere esku utzi zen.

Asmo horren jarraipenerako lehen lehenik pentsatu nuen urte bakoitzean Euskal Herriaren eskualde bakoitzari txandaka eskaintzea, testuz, irudiz eta ahal denean musikaz ere bai. Eskualdekatze hori euskalkien arabera hautatuz. Horren ondorioa gaur egun historia tipi bat denez,

horregatik nator une bakoitzean zergatik edo zelan jokatu den kontu ematera.

Lehen ekintza honetarako txartel neurria, posta ahalik merkeena izango bazen, estalki estandard-etatik luzekinera jo genuen, amerikanoa esan ohi dena. Inprimaketa ordea Eibarko Agirresarobe, S.A., etxeari ematea erabaki, zeren hasi nintzenean hiri hartan bizi nintzen eta gainera lehenagotik etxe horrekin antzerako lanak eginga nengoen, 1964-1967. urteetan Eibarko Arte Ondareaz eta historiaz elkarrekin lanean arituak ginenez elkarganako idea hurbilen loturak genituelako.

Bestalde, txartelei urterik ez jartzea pentsatu genuen, sobranteak hurrengo urteetan baliatzeko.

Oinarri horiekin abiatu ginen asmoa mamitzera eta hara orainarte burutuaren berri.

Berri emate hau premiazkotzak jotzen dut, une bakoitzean zerk bultzatu gaituen eta bakoitzean zer lortu dugun aditzera emateko. Gainera, esperientzia honi beste edonorentzat ere baliagarria deritzat, naiz aministralgo, zein beste edozein entrepresa, erakunde edo elkartetek bide bera har dezaten. Hemen ez bai dago inongo patenterik, ezta ere *royalty*-rik; aldiz, mendeak zehar euskaldungoak Eguberriko gaiak zer eratan erabili dituen ikus ditzakegu.

Argibide horien ondotik, hona hemen hasiera eta jarraipena:

Lehenengoa 1981ean argitaratu zen. Pedro Barrutia aramarioarraren sortze hirugarren mendeurrena zetorrenez, eta Arabari eskainiz, bere antzerkitik bertso hauek hartuz:

*Belengo portalean,
Baturik oxalean,
Kunearen ordeaz,
Daratza pesebrean.*

.....
*Zeruak eta lurrak
Zeureak izanik,
Nola zatoz mundura
Orren billoxik?*

*Abere mutu biren
Erdian jaio dana,
Bera adoratzera
Zeruti jatsi gara.
Iru Errege Mago
Izar baten atzean
Bisitatzera datoz
Dromedario gainean.*

*Jesusikori bear deusat
Billantziko bat kantatu:
Adi, adi, adi, adi,
Adi ezazuz berba bi:
Azkonarraren atzamartxo
Ekarriko dot menditi,
Begizkorik eztegiuen
Bulartxopean isegi.*

Testu hori hautatu genuen lehen aldikotz Eguberri zorionsuen opariz. Berezienak, gure iduriz. Eta Arabako Museoan dagoen flamendar triptiko ederraren irudia.

Irudi hortan Haurra zeharo biluzik dugu, Barrutiak aipatzen duen oihalean (oxalean) bildu gabe. Gainera, gure antzerkigilea jaio baino mende bat lehenagoko aldare hirukoitza dugu. Baina ezin uka aramaioarrek bere sorterrian eta hainbeste urteren buruan eskribau izan zen Mondragoen gazterik ezagutuko zuen girotik hain urruti ez zebilela. Euskal Herriak Europako ifarraldearekin merkataritza harreman hertsia izan zituen Ertarotik itsasoz eta Gasteiztik itsas-portuetarako biderik garrantzitsuenetako bat zen Arrasate. Horren lekuko dira Mondragoeko eliza gotikoa, 1350. urtean eraikia, eta Arabako Museoan gordetzen den XVI. mendeko triptikoa, Jesusen jaiotza gai duela.

Bigarrena, 1982an, Lizardi olerkariaren heriotzako berrogetahamar urte betetzea zetorrelako gure omenaldia agertu nahi genion, "Argi egidazu" esanaz Kristori eskaini zizkion bertsoetarik hiru hautatuz:

*Begiaren begi,
Jainko-geznari,
belardi beltzeko
loreño txuri:*

*Argi egidazu,
gau orotan argi;
biotz-ixuria
nire baitan azi;*

*Amesmena goza
ttantta bat urdiñez;
iduki nazazu
sor-gor, zure minez...*

Txartela irudiz hornitzeko Jaiotza gai egokirik ez genuen aurkitu bere sorterrian zen Zarautzen, baina bai Jesus Haurra bere Ama eta amonarekin, Joanes Antxiaren diszipulu zen Anbrosio Bengoetxea alkizar eskultoreak 1614. urtean egin zuen erretaulan. Eta horrekin parekatzeko, Lizardi hil zen Tolosako hirian Frantziskotarretan A. Bengoetxea berbe-

rak urte bete geroago egin zuen erretaulako Andra Maria Haurrak. Horrela osatzen genuen gipuzkoar eskultore famatuen oroitzamenarekin batean euskal literaturan eman den poeta handia.

1983an aldiz, Iruñean Euskaltzaindiaren sortzaileetakoa eta *Gramática Bascongada* (1884) haren egile izan zen Arturo Campión-i omenaldi egitea pentsatu zen eta gure asmoa Nafarroara begira jarri genuen. Aldi berean bizi-zirenetarik euskaltzainik zaharrena zen Aita Damaso Intzaren bildumak gogoan harturik. Hara hor mende honen haseran Abaurregai-nean jaso:

EGU - BERRI! EGU - BERRI!

GAUR DA E-GU-BERRI - A -

GURE JAUNA JAIÓ BAITZEN

OI HAU POZ ATSEGI - NA.

*Eguberrri! ¡Eguberrri!
gaur da Eguberrria!
Gure Jauna jaió baitzen,
oi hau poz atsegina!*

*Eguzki aldetik datoz
laster hiru errege,
Birjinaren argi hori
han ikusi baitute.*

*Hirurak eman diote
Jesusi emai bana,
urre gorri eta mirra
eta intzentsu ona.*

Edergarriz zer hobeagorik Iruñeko katedraleko kalostrean dagoen Erregeen gurtzapan gotikoa baino? Jesus, Ama Birgina eta belaunikaturik dagoen erregea Jacques Perut-ek XIV. mendearen hasieran eginak dira

eta beste bi erregeak handik laster beste norbaitek. Eskultura horiek aski ezagunak dira Europako artean gotikoaren eredugarri.

Euskal literaturaz zerbait arreta jarri dutenetarik norik ez ote du ezagutzen Ziburuko Joanes Etcheberriren *Noelak*? Lapurdiri Eguberritako *Christma* eskaintzean ezinbestekoa genuen 1630. urtean argitaratu zuen bere obra eder hartarik hautatzea. Eta hautatzekotan zer hoberik herriak ahoz aho bere doinu politez ekarri diguna baino? Hara hor kantaren zati hautatua:

O E-GU-BERRI GAUA
BOZ-KARIOZ-KO GAUA
A-LLE-GERATZEN DU-ZU
BI-HO-TZEAN KRISTAUA
MUN-DU GUZTI-A DU-ZU
ZO-RI-O-NEZ BE-THE-TZEN!
ZER-GA-TIK BAITI-O-ZU
SAL-BA-TZAI-LLEA EKHA RTZEN
ZER-GA-TIK BAITI-O-ZU
SAL-BA-TZAI-LLEA EKHA RTZEN

*O Eguberri-gaua,
bozkariozko gaua:
allegertzen duzu
bihotzean kristaua.*

*Mundu guztia duzu
zorionez bethetzen
zergatik baitiozu
salbatzaillea ekhartzen.*

.....
*Aingeru onak berriz
hasi dire kantatzen,
tristeak dituztela
boztera gonbidatzen.*

.....
*Ixildu behar zuten,
guk ordainez kantatu,
zorionean dela
Jainko-Semea sorthu.*

Garai hartan Sara-Ziburu artean loratu zen literatura mugimendu hark merezi zuen oroitzapen tipiño hori. Mende bereko zenbait pintura lauki baziren Ziburuko Kolegiata haretan, gero parrokiara eramanak. Eta Ziburuko elizan Jesus-en Sortzea aurkezten duten bi lauki hatzeman genituen eta beretariko bat hartu 1984an *Christma* argitaratzeko.

Bizkaira begira hasi nintzenean R. M. Azkue zena nuen buruan. Hobeto esan, berberak 1896. urtean argitaratu zuen bere aita Eusebioren *Parnasorako bidea* deritzan liburuan dauden hainbat Gabon bertso. Arte aldetik Lekeition banuen jaiotzaren edergarriak hautatzeko aukera ederrrik, baina gurasoak oroitzean ezin ahaztu bere ama Karmen Aberasturi mundakarra. Gainera, Eusebiok Mundakan bizi zen garaian idatzi zituen nik begiz jota neuzkan bertsoak, 1862an.

Mundakara joan nintzen Jaiotzaren gairik aurkitzen ez banuen hango parrokiari dagoen Andra Mari ederraz baliatzeko asmoan eta hura izan zen ustekabea: Hamazortzigarren mendean Jesusen Bihotzaren debozioari eskainitako erretaulan hemeretzi ohol eskultura landuz deskubritu nituen, misterio eta pasio gaiez, XVI. mendearen bukaerakoak; *manierismo* estilokoak eta Joanes Antxieta azpeitiarraren eskolakoak. Bertako imajinak Migel Angeloren oroitza dakarte. Gainetik purpurinaz berpintua da baina azpitik polikromia jatorra gordetzen du.

Horrek eraman ninduen erretaulari ahal zen probetxurik hoberena ateratzera, bazterretan ezagutarazteko. Azalean Anunziazioa, E. M. Azkue-

ren hitz hauekin: “Gabrielen agoti / Ave bat arturik”. Barruan Bisitazio-nea elkarrizketazko bertso hauekin:

Ama: *Lurrera ezker
neure Maria,
Jauna zetako
dot nik bizia?*

Arimea: *Ondo nago ni
Jaungoikoagaz,
andrea nintzan
aingerua naiz.*

Azkenik, berpintaketaz itxuragabetua eta hautsez beterik egonarren, era hortan bere lekukotasuna duen ustean, Jaiotza; bosteko taldea Haurrarekin, tartean beia eta astoa direla. Irudi horrentzat honako bi bertsoak hautatu nituen:

*Zeruko ta munduko
Jaubea izan arren
otzmindu ta gorputza
gugaitik ekarren:
bere lenengoko oia
zan aska bat zarra,
eta bere atsegiña
otzagaz negarra.*

*Nor egon zatekean
Belendik urrean
geure Jauna ikusteko
geu legez lurrean!
Baina an egon ezarren,
daukanak fede ona,
altaran ikusten dau
Jauna ta gizona.*

Christma honi izenburutzat “Gabon” jarri nion, erretaularen garai berean hain ospetsua zen Joanes de Iziar durangar kaligrafoak sortu zituen letretatik hautatuak.

Aurtengo *Christma*-k Euskal Herrian aurkitu genezaken Epifania aurkezten duen imajinarik zaharrenak dakartza. Erromaniko zaharreko bi xapitel, batean erregeak zaldiz eta bestean Haur sortu berriaren adorazio-nea. Haurraren aurpegiak adierazten duen samurtasun paregabea oso bitxia egiten zaigu estilo horren goiztasunez. Eta inguruko apaingarriak eurak ez dira gutiago. Gaineko hegal moldura, trentza estriatuz eta hostoak uhinen antzera era berean estriaz marraturik, *francomerovingio*

kutsu nabaria dute; eta bi xapiteletako izarrak geroago herri artearen apaingarrietan maiz aurkituko ditugun errosetak.

Oroi Santa-Garaziko eliza portuak igarotzeko toki berean zen erro-mes ospitalaren kapera zela. Nafarroako Santxo III.a (Santxo Handia) erregek ideki zituen bideetarik bat zela esango genuke, eta arte mota hori ere inguru hartakoa.

Arte gaiari zegozkion hiru kanta hautatu nituen, eta doinu arazoetan kontseilari izaten dudan adiskide eta lankide J. A. Arana Martijak pastorealeko doinu zaharrez eginikako hau hautatu zidan:

A-DO - RATZEN ZÜTÜT, JAUNA,
 E - RRE - GI - EN E - RRE - GI - A,
 E - RRE - GE - IMOR - TA - LA ETA
 MO - NARKA IN - SI - BI - LI - A

Albert Constantin (1783-1957) Atharratzeko midikuak letra jarri eta Azkueri *Cancionero*-rako igorria. Gainera, Albert, anitz urtez Eskualza-leen Biltzarreko buruzagi izan zen eta Zuberoan ospe handiko gizona, bere aita santagraztar Jean Baptiste zen bezala. Aitak bezainbat idatzi ez bazuen ere, nork daki Santa-Graziko xapitel horietako irudiak ez ote zuen bultzatu bertso hau egitera? Bai, agian:

*Adoratzen zütüt, Jauna
 erregien erregia,
 errege imortala eta
 monarka insibilia.*

Azken hitza, “insibilia”, Azkuek *invisible* itzulpenez eman zuen (ikus *Cancionero popular vasco*, bigarren tomoaren 836. orrialdea).

Euskaltzaindiak argitaratu duen *Christma* hau berezietakoa izango da Eguberriz zabaltzen diren milaka eta milakaren artean. Euskal Herrian aurki ditzaken Epifaniaren irudirik zaharrena ematen bai du Santa-Graziko xapitel horiekin.

Zuberoara bidaia aprobeztatu, Nafar Erresumaren seigarren merindadeari eskaini beharra dugunez helduden urteko *Christma*, Euskal Herriaren zazpi zatiak osatzeko, Ibarrolako elizan XVI. mendearen azkenaldiko ohol bat fotografiatu genuen, zeinetan aurkezten bait da Jesusen Sortze eder bat romanista estilokoa.

Hortarako begiz joa nuen "Oi Bethleem!" kanta. Guk dakigunez, lehenik 1897an *Uskal Noelen lilia* zeritzan bilduma hartan argitaratua; gero S. Hiriartek 1906an *Euskalduna eliza kantuak* zeritzan lanean berriz emango zuena, eta 1965. urtean Londresko BBC (British Broadcasting Corporation) irratiak mundu zabaleko musikariaren artean Eguberri kanta hobereenen galdeaz egin inkestan hirugarrentzat hautatua. Lehenen "Ades-te fideles", bigarren "Stille Nacht" eta hirugarren "Oi Bethleem!". Berri hau ere musika bertsoen arabera neurtuz pentagramak jarri dizkidan J. A. Arana adiskideari zor diot. Honetara, kantuaren iraupena bultzatuko dugun uste osoan, gure hizkuntza den artean sekulorum sekulotan:

OI BETHLE - EM

A LA E - GUN ZU - RE LO - RI - AK

OI BETHLE - EM

ONGI BAI - TU DIS - TI - RA - TZEN

ZUGANIK HEL - DU DEN AR - GI - AK

BETETZEN TU BAZTER GU ZI - AK

OI BETHLE - EM

OI BETH - LE - EM

Oi Bethlehem!
Ala egun zure loriak,
Oi Bethlehem!
Ongi baitu distiratzan
Zu-ganik heldu den argiak
Bethetzen tu bazter guziak,
Oi Bethlehem! (bis)

Zer ohore!
Ala baitzare goratua!
Zer ohore!
Zer grazia! Zer fagore!
Zeruak zare hautatua,
Jesus Haurraren sorlekua,
Zer ohore! (bis)

A-DO - RATZEN ZÜTÜT, JAUNA,
 E - RRE-GI-EN E-RRE - GI - A,
 E-RRE-GE-IMOR - TA - LA ETA
 MO - NAR KA IN - SI - BI - LI - A

OI BETHLE - EM
 A LA E - GUN ZU - RE LO - RI - AK
 OI BETHLE - EM

ONGI BAI - TU DIS - TI - RA - TZEN
 ZUGANIK HEL - DU DEN AR - GI - AK
 BETETZEN TU BAZTER GU ZI AK
 OI BETHLE - EM
 OI BETH - LE - EM

EGU - BERRI . EGU - BERRI !
 GAURDA E - GU - BERRI - A -
 GURE JAUNA JAIO BAITZEN
 OI HAU POZ ATSEGI - NA .

O E - GU - BERRI GAUA
 BOZ - KARIOZ - KO GAUA

A - LLE - GERATZEN DU - ZU

BI - HO - TZEAN KRISTAUA

MUN - DU GUZTI - A DU - ZU

ZO - RI - O - NEZ BE - THE - TZEN!

ZER - GA - TIK BAITI - O - ZU

SAL - BA - TZAI - LLEA EKHARTZEN

ZER - GA - TIK BAITI - O - ZU

SAL - BA - TZAI - LLEA EKHARTZEN